

Antxiñako fotografixak

Oñatiko 8.000 argazki zahar Interneten

Foru Aldundia eta Oñatikok udalaren lankidetzari esker, gure herriko 8.000 argazki zahar daude orain ikusgai www.guregipuzkoa.net atarian. Gipuzkoako argazki ondarea biltzeko asmoz jarri du abian diputazioko Kultura sailak 'GureGipuzkoa' ekimena, eta poliki poliki, udal eta era-kunde eta ezberdinen lankidetzari esker, herri ezberdine-tako irudiak ari da batzen eta herritar guztien eskura jar-tzen.

Oraingoan, esan bezala, Oñatiko 8.000 argazki zintzili-katu ditu. Gehienak, Jesus M^a Arzuagak Oñatiko Udalari dohaitzan emandako funtsekoak dira, eta beste asko, 'Oñati-ko Historia eta Arte bilduma' libururako Pedro Luis Orma-zabal, Jerardo Agirre, Agustin Goenaga eta Luxio Ugartek ateratakoak.

XX. mendeko bigarren erdiko argazkiak dira. Gure herrian jazotako gertakari berezi askoren lekuko. Horren adibide, orri honetan bildi ditugun aleak: Joxe Migel Barandiarani Oñatin egindako omenaldia (1979), Isabel Tenaille tele-bista aurkezle ospetsuaren ezkontza Arantzazun (1978-10-09), eta San Migel kooperatibaren inaugurazio egunean (1965-04-24) bertako dendariei ateratakoa.

Argazki hauek guztiak www.guregipuzkoa.net atarian daude ikusgai, esan bezala, baina nahi izanez gero, Oñati-ko udalaren webgunean ere aurki daiteke sarbidea www.oinati.eu/udal-zerbitzuak/udal-artxibo-zerbitzua/funtsak helbidean.

Argazkiak katalogatuta daude, baina udal artxiboko ardu-radunak jakinarazi digunez, informazio asko falta da. Beraz, kontuan hartuta www.guregipuzkoa.net atarian ekarpenak egiteko aukera dagoela, artxiboko arduradunak animatu egin nahi ditu herritarrek argazkiak ikustera eta lagungarri izan daitekeen informazioa ematera.

Ikusi ez ezik, argazkiak jeitsi edo deskargatzeko aukera ere badago GureGipuzkoa atarian, baina erabilera publikoa egiteko bada, aurrez baimena eskatu beharra dago udal artxiboan. Gogoratu, argazki hauen kopiak artxiboan ber-tan eskura daitezkeela 0,5€-tan.



Udal artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtseko argazkiak.



EGUR-LAN

AROZTEGIA

- Leihoak
- Ateak
- Altzariak
- Tarimak
- Era guztietako egur lanak

Berezaio Industrialdea • Tel./faxa.: 943 78 14 59

OÑATI (GIPUZKOA)

Z ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20